

# MENDI IRTEERAK:

## Kalean egin ezin zena mendian egin behar

“**M**endira igotziak askatasunaz amets egiten lagatzen zigun”. Euskararen gordelekua izan da Euskal Herrian. Kalean egin ezin zena mendian egitea lortzen zuten orduko euskaldunek. Euskal giroa berpizteko pizgarri garrantzitsuak izan ziren mendi-irteerak. Mendi batzuek, Urbiak adibidez, beren egun berezia izaten zuten, eta jende mordoak biltzen zen. Mendi-tontorretan ipini omen ziren gerra osteko lehen ikurrinak ere.

Elgoibarren 1960-61ean hasi ziren antolatzen mendi-irteerak. Esan bezala, mendi-irteera horien helburu nagusia euskal giroa piztea eta bultzatzea zen: umeez beraien artean euskaraz egitea, gurasoek eta umeez euskaraz jardutea elkarrekin, eta, azkenik, gurasoek beraien artean euskaraz berba egitea.

Elgoibartarrak inguruko mendi-  
etara joaten ziren batez ere:  
Kalamua, Morkaiko, Sargoate,  
Arrate, San Pedro, ... Udaberrian  
hasi eta eguraldiak lagatzen zuen  
bitartean, ia domekero anto-  
latzen zituzten mendi-irteerak.

*Euskal giroa berpizteko  
pizgarri garrantzitsuak izan  
ziren mendi-irteerak.  
Udaberrian hasi eta,  
eguraldiak lagatzen zuen  
bitartean, ia domekero  
antolatzen ziren mendi-  
irteerak.*

Zer egiten zuten mendian?

Jolastu. Eguna mendian pasatzeko behar zirenak motxilan hartu eta jolasean, kantuan eta dantzan pasatzen zuten eguna.

60ko hamarkada osoan iraun zuten mendi-irteerek. Gero, poliki-poliki, bertan behera geratu ziren.

Ez dakigu orduko eraginagatik izango den, baina, gaur egun ere, mendian euskara dezente gehiago entzuten da kalean baino. Apustu egingo genuke Aizkorri edo Hiru Erregeen Mahaiko puntan euskara gehiago entzuten dela Madalako parkean baino.



*"Mendira igotziak askatasunaz  
amets egitten lagatzen zigan"*



Udaberrian hasi eta domekero elkartzen ziren mendira joateko.



Kalean egin ezin zena, mendian egiten zuten: euskaraz gozatu.